

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko abuztuaren 11

Egunkaria

Gehigarri honetan



**Amaiur** • Asteartean, artzain txakurren txapelketa ez ezik, behi eta ardi azienden sariketa ere egingen dute.

**Koldo Erbiti** • «Zaila da saskibaloiko entrenatzaile euskaldunak aurkitzea»



• INAKI VERGARA

Aukera mordoa du turistak: hotelak, pentsioak, kanpinak, apartamentuak, aterpeak, landetxeak... Nafarroan oporretan ostatu hartzeko toki eta modu anitz dago. Hona hemen bi adibide: Olaseneko-Borda eta La Fresquera. Lehena Beran dagoen landetxea da. Bigarrena Berbintzanan dago, eta zail samar egiten da zehatz zer den esatea. Biak oporretarako etxeak dira, baina ez dute elkarrekin zerikusirik. Kontua ez da biak konparatzea, oporrak igarotzeko bi etxeren berri ematea baizik.

# Oporretarako bi etxe

# Lekunberri • Natura ikusteko beste era bat

Ramon Ruiz Cabestany eskulangilearen zeramika lanak Mitxauseña kultur etxean daude ikusgai

Abuztua bukatu arte, Mitxauseña kultur etxean Ramon Ruiz Cabestanyren lanak izanen dira ikusgai. Natura beste ikuspuntu batetik erakutsi nahi izan du Cabestanyk, eta bere lanen izenburuak hori islatzen dute: Ura beti bere lekura, Lurpean, Darrai eta Paisaia.



Ramon Ruiz Cabestanyk bizitza ikusteko beste modu bat aurkitu du Iribasen, eta bere irudietan islatzen da hori.

ELI BELAUNTZARAN

RAMON RUIZ CABESTANY duela 13 urte Larraungo Iribas herrira heldu zen, etxe baten bila, eta hantxe topatu zuen bere gustukoa, beste hamaika herrietan berrehun bat begiratu ostean. Orain Lepotxenean dauka bere lantegia, eta bertan, ordu asko ematen ditu bere lanak prestatzen. Zeramikazko lan horiek, hila bukatu arte, Lekunberriko Mitxauseña kultur etxeko lehen solairuan izanen dira ikusgai, lanegunetan 18:00etatik 20etara eta asteburuetan 11:30etik 14:00etara.

Duela zazpi bat urte prestatu zuen Cabestanyk bere

lehen erakusketa. Orduz geroztik besteren bat ere egin du. Arribeko Mailopen ere zabaldu zuen beste bat, Ramon Marcos eta Marta Berraondorekin batera.

Gres eta refraktario izeneko materialekin egindako lanak dira Cabestanyk oraingoan aurkeztu dituenak. Berari asko gustatzen zaizkion materialak dira, baina oso gogorak dira, lan egiteko zailak. Horretarako, bi labe ditu, bat

gasoleozkoa eta bestea propa-nozkoa.

Iribasen dituen labeak bestelako lanak egiteko erabiltzen ditu Cabestanyk. Izan ere, erakusketarik ez duenean, beste nonbaitetik bizi behar du. Eta, horregatik, urte askotan besteentzat egindako lanak saldu ditu. Etxerako tresnak, enkarguz egindako irudiak, arkitektoek eskutatako frisoak eta beste hamaika gauza egin ditu gizon ho-

nek Iribasko lasaitasuna lagun zuela.

Erakusketa zabaldu zutenean, lagun eta artista ezagun asko etorri ziren bertaraino: Alvaro Matxinbarrena, Juan Luis Goenaga, Iñigo Altoagirre, Jaime Otamendi eta beste. Etxekoak ere han izan ziren eta, nola ez, Lekunberri eta Larraun aldeko lagun asko ere. Mitxauseña kultur etxeraino etortzerik ez duenak Cabestanyren Iribasko etxean ikusi ahal izanen du bere obra.

→ Eli Belauntzaran

## Aralar • Teodosioren kondaira asteartean

HELDU DEN ASTEARTEAN, Aralarko santutegira igoko diren bisitariek, ikuskizun paregabe batez gozatzeko parada izanen dute. Izan ere, santutegian, Goñiko Teodosioren eta dragoiaren kondaira antzestu eta kontatuko dute. Navarro Villosladak idatzirik *Amaia, euskaldunak VIII. mendean* lan handiaren pasarte bat da Teodosioren.

Cultur 2000 egitarauaren baitan dago ikuskizuna eta euskaraz zein gaztelaniaz ematen dute. Iragan uztailearen 23an estreinatu zuten; uztailearen 30ean eskaini zuten bigarren goz, eta hurrengo asteartea izanen da Teodosioren andantzak eta mudantzak ezagutzeko azken aukera. Antzadenez, aurreko ekitalditan haurrak izan ziren kontakizunarekin gehien dibertitu zirenak. Kondairako pertsonaiak santutegiko inguruetan egon omen ziren eta, egoteaz batera, are misterioetsuago egin zuten Aralar. Teodosiok bere gurasoak hil zituen, Amaia emaztea eta haren amorantea zirelakoan. Okerraz oharturik, Aralarko kobazulo batean egin zuen penitentzia. Hantxe dragoia agertu zitzaion eta, San Migelen laguntzaz, akabatu zuen. Ikuskizunaren bukaeran kontatzen dutenez, santutegiko horma batean bada zulo bat non burua sartuz gero dragoiaren arnasa entzuten den.

→ Daniel Urrutia

## mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Mapak ezin du beti bidea erakutsi, ezin izen guztiak jaso. Esaterako, egungo kartografo guztiak bat datoz kontu batean: Iruñeak ez du itsasorik. Nik, ordea, badakit Iruñeko zein lekutara joan behar den itsasoa ikusteko. Jakina, ni naiz nik ikusten dudana itsaso horren ertzean dagoen ikusle bakarra, ni jabe bakarra. Itsaso horri itsaso hau deituko diot.

Bada beste bat, beti hor hurbil izan duguna, batzuek «gurea» edo «etxekoa» deitu izan dutena. Nik itsaso hori esanen diot. Hortxe egon da eta hortxe dago, eta iparreko zeruak izan ditzakeen tonu guztiak eskaintzen dizkigu, ohizkoa baino ur gaziagoa zipritin batzuetan eta pazientzia eta zorte apur bat duenari rayon vert iragankor bat arrastirian. Sinetsita gaude euskaldun oro noizbait inguratua dela bazter horietara, baina beldur naiz ez ote garen baikorregiak, edo

## Itsaso hura

hasi bestela Iruñea aldean galdetzen non diren Ea edo Elantxobe.

Hirugarren itsasoaren izena da ospetsuena. Eta, hain zuzen ere, izenik ez duelako. Nik itsaso hura deituko diot. Nik jaso ditut haren zantzuak, doinu urrun baten leloa. Adoretu abiatu direnen narrazio zehaztugabeak entzun ditut. Itsaso hura egon badela esan didatenak ere topatu izan ditut. Nire harridurarako oso gutxitan ebakitzen dute itsaso hitza eta behin eta berri eguzki hitza, ia sinonimoak balira bezala.

Deskribapen laburrak eta loturarik gabekoak egiten dituzte. Laster ohartzen naiz akituta daudela, begiratu galduta dutela. Eta instant horretan konturatu zara itsaso hura urrunegi dagoela, mila puska dituen ispilu batean, hara joaten direnen begien atzean, loteria erosten dutenen begien atzean, pantaila tiki eta handietan, auto berrien retrobisoreetan,

hegoalde ez-geografiko batean, perkutsioz betetako kantetan...

Egiten dituzten saioak, azken batean, naufragoen kontakizunak dira, berdetik urdinera doan itsasoari beha egon direnen begirada lauso eta nahasiari dagozkionak. Paradisuaren bila joaten denak eguzki gogorregia jasotzen du, eta eguzki errukigabeak bera eta bera bezala sukar berak jota dagoenaren larrua argitzen du, beren mapa den larrua; eta agerian uzten ditu zimurra eta lagun hurkoaren oihua, eta airea irensten duen lurrina, eta erori eta galduta den guztia.

Itzulera zaila dauka. Susmoa du ez daukala abiapuntura itzultzerik, eta aldi baterako utzitako etxea ere ez zaio nahikoa. Munduan diren mapa guztiak zabaldua ere nekeza izanen zaio ur pixka bat aurkitzea. Hori besterik ez: oin haziak zipritinduko dizkion egiazko ura.

Amaiur ●

## Behi eta ardien sariketa

Artzain txakurren txapelketaren 25. urteurrena beteko da aurten

Amaiurko herritarrek lan ederra egin dute aurtengo bestak antolatzeko. Urtero antolatzen duten artzain txakurren txapelketaren 25. urteurrena betetzen dela eta, ekitaldi berezia antolatzea erabaki dute: behi eta ardi azienden sariketa.



Asteartean, urteroko artzain txakurren txapelketa ez ezik, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko behi eta ardi azienden sariketa ere egingen dute Amaiurren. ●RAKEL GOÑI

**A** STEARTEA EGUN HANDIA izanen da Amaiurren. Ekitaldiak 00:09tan hasiko dira, behi eta ardien sariketarekin eta Legasako Indart anaiek ekarriko duten behor eta zaldi erakusketarekin. Hori guztia herriko Artxeo zelaian izanen da. Sariketan Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko herritarren aziendek parte hartuko dute, orotara 100 behi eta 250 ardi (7ko 40 lotetan).

Aipatu behar da alor bereko lehiaketa egin zenean Nafarroan 17 ardi lote aurkeztu zituztela; beraz, antolatzaileek lan ederra egin dute 40 lo-

teetara iristeko. «Etxez etxe joan gara baserritarrak animatzen, eta azkenik anitz etorriko dira», azaldu du Luis Mari Goienetxe arduradunak. Baztango Udalak antolaketan lagundu du eta dirua eman du bi milioi eta erdiko aurrekontua osatzeko.

#### Sariketa, lau taldetan

Sariketa lau taldetan banatuko da: Pirinioetako arrazako behiak, haragi aratzeak, buru beltzeko ardiak eta buru gorriko ardi latxak. Sari

banaketa 13:00etan izanen da. Txapeldunak dirua, garai-kurra eta agiria jasoko dute.

Arratsaldeko 17:30ean, artzainen eta zakurren desfilea ikusteko aukera izanen da; ondotik, 18:00etan, Artzain Txakurren 25. Txapelketa hasiko da. Aurten bi proba bete beharko dituzte zakurrek; beste urteetan hiru izaten ziren. Baina oinarrrian egin beharrekoak ez dira aldatu. Lehenik, zakurrak ikurrintxoetan tartean joan beharko du erlojuaren aurka. Bigarrenik, artalde hartuta itxi batean

sartuko dute; ondoren, handik aterata zakurraren ondora bildu eta azkenik ateka batetik pasarazi beharko du.

Iazko txapeldun Felix Irigoienek eta Rubi txakurrak ez dute hutsik egingo, ezta Oñatin nazioarteko titulua lortu zuen Joxe Urienek ere. Bereiztasuna epaimahaian egonen da, guztiak Baztangoak baitira: Juanito Maisterrena, Joxe Urrutia eta Koldo Goienetxe amaiurtarrak eta Martin Garde gartzaindarra.

→ Rakel Goñi



#### herri aldizkariak Asier Legarda-ereño

### Meategietako kontuzaharrak

**TTipi-ttapa** aldizkariak Bidasoa aldeko meatze zaharretako kontuak dakarzkigu bere azken alean, eta, horretarako, Joxemartin Zubieta eta Joxe Fagoaga beratarrekin (bertan lanean aritutako bi gizon) Bezerroko meatzera sartu ziren *Ttipi-ttapa*-ko lagunak. «Herritarrek Bezerroko mina erraten diote, baina berez 'Mina Ley' zuen erdarazko izen ofiziala», hala ere «Beran gaur egunean ez da mehatze bakar bat ere gelditzen, erreka honetako zoko gehienetan bezala orain dela 10 bat urte itxi baitzituzten azkenekoak».

Meatze Berako fabrika zaharrentzat metala ateratzeko ireki omen zen, eta azken urteetan Gran Compañía Asturiana egin zen meategiaren jabe, baina bi protagonistek ez zuten azkeneko sasoi hori ezagutu. «Gu lehenago geratu ginen, orduko aldatuak ginen hemendik. Ni 1964an eritu nintzen», gogoratzen du Joxe Fagoagak. Bihotzekoak emanda medikuak meatzean lan egitea galarazi zion.

Lan zaila eta zikina zela ez dute ukatzen Joxek eta Joxemartinek. Lehenak gehienetan meatzearen kanpoaldean aritzen zela azaldu du;

Joxemartin, berriz, meatzearen azpi-azpian aritu zen bere denboretan, baina arrisku handirik ez omen zen. «Pareta hauek aski fuertek dira, hemen dena metal fina duzu, dena arroka. Nik behin bakarrik ikusikatu dut arrisku handia, nere koinatuari harri kozkor bat erori zitzaion, baina bertzerik...», esaten du Joxemartinek han azpian lasai aritzen zirela azaltzeko. Joxe Fagoagak aitortzen duenez, Beran «bolada batean izan zen ez jan eta ez lan», eta hala ohitutakoentzat lan arriskutsurik ez zen, noski.

#### Negoiaziorantz

Niretzat balizko negoziazio batean amore ematea nahiko erraza izanen litzateke. Ez dut eskaintzeko deus ere ez. Ez gordetako amosalik, ez eta Konstituzioa aldatzeko inongo ahalmenik. Ni punto final lege horietako baten aurrean amore emateko prest nago, eta ez dut besterik eskaintzeko. Ikusten duzue joko politikoan hutsaren hurrangoa naiz ni. Galindo eta Dorado libre aterako zirela onartzen dut eta gaur bertan torturazailer batek atxilotutako gazte bat hilko balu hori ere errugabe bezala bizitzeko aukera izango zuela ametitu eta oraintxe sinatuko nuke. Etika falta esango dute batzuek. Nire ustez, ez da hori: kontua da bake justurik ez dagoela. Bake guztiak bidegabeak direla, eta batez ere bake madarikatu horretara heltzeko hori, besterik ez, ez dudala eskaintzeko. Inor hiltzen ez dudanez ezin dezaket treguarik egin. Ministroa ez naitenez ezin esan» akabo sarekada eroak, akabo legearen salbuespen egoerak». Trantsizio berria egitearen aldekoa naiz, beraz. Jauregi hil zutenak. Lasa eta Zabala hil arte torturatu zituztenak. Denak errugabe eta kalean. Trantsizioa dela-eta behin Corcuera ministro ohia irratan elkarrizketatzen ari zirela, entzule batek deitu eta galdetu zion: «Frankismoaren garaian ni torturatu ninduen gaur egun Guardia Zibileko komandantea da, nola izan liteke?». Corcuera erantzuna oraindik gogoan dut: «Trantsizioa denok elkarrekin egitea hitzartu genuelako, okinek eta guardia zibilek, denak batera». Bale. Hala izan bedi. Tristatu egiten nauten horrelako kontuek, baina gauza bat gehiago gehituko dut: nik ez nuke zuzenean, zuzenean diot (zeharka asko), deus ere irabaziko. Beraien Aberriak maite dituztenek, al-diz, askatasuna, lasaitasuna, mehatxurik gabe bizitzea, aberrien aldeko lana modu erosoagoan egitea... dena daukate irabazteko. Interes handiagoak dituztenek eskain dezatela, behingoz, nik ez dudana hori guztia. Ni ez bezala, hain etikoa badira. Eta, mesedez, gerora ez daitezela tronpatu: okinek ez dute punto final bezalako legedirik behar, ez dute etekin pertsonalik ateratzen, eta sinatzen badute, seguru asko, besteenganako begirune txalogarri bategatik da. ●

# Olaseneko-Borda

**N**AFARROAN 407 LAN-  
detxe zeuden aur-  
tengo ekainean, eta urte  
bukaerarako 430 izatea  
espero dute. Eskaera  
handia da, eta eskain-  
tzak horren parean egon  
nahi du. Baina merka-  
tuak gainezka egin du.  
Horixe uste du bederen  
Sagrario Goñik. Berako  
Xantel-Erreka auzoan  
dagoen Olaseneko-Bor-  
da landetxeko nagusia  
da, baita Hiruak Bat el-  
karteko lehendakaria  
ere. Hiruak Bat elkar-  
teak Bortziriak, Malerreak  
eta Baztango landetxeak  
biltzen ditu. Nafarroan badira bertze lau el-  
karte: Estellerría, Orreaga—Aezkoa, Erron-  
kari—Zaraitzu eta Aralar-Urbasa. Lehen  
bakarka joaten ziren Nafarroako Gobernu-  
aren aitzinera; orain, ordea, elkarrekin. Indar  
handiagoa dute horrela.

Kurtoski, landetxeen elkarteko lehenda-  
kariak ez du uste bere etxea landetxea den-  
ik. «Nirea ez da landetxe bat», dio. «Lan-  
detxeak azienda izan behar du eta nagusiak  
abeltzaina izan behar du. Landetxea base-  
rria da».

## Sailkapenak gora eta behera

Iragan urteko abuztuan Nafarroako Gober-  
nuak landetxeak arautzeko foru dekretua  
onartu zuen. Horren arabera, landetxeak  
sailkatuko ziren bat, bi edo hiru hosto para-  
tuz. Baina landetxeen elkartekok atzera bo-  
ta dute sailkapen hori.

«Klasifikazioa ez zen oso ona», erran du  
Sagrario. «Etxea izan daiteke politena, ede-  
rrena, baina bainugelan ilea lehortzekoa ez  
baduzu, puntuak kentzen dizkizute. Adibid-  
ez, hemengo landetxerik hobereena Urrus-  
ka da, Elizondokoa. Benetakò baserria da.  
Hosto bat paratu zioten soilik etxerako  
bidea gaizki zegoelako. Horregatik erran  
genuen ez genuela deus jakin nahi sailka-  
pen horrekin».

Batzuek etxe osoa alokatzen  
dute, eta bertze batzuek,  
logelak soilik. Olaseneko-  
Bordan 6.000 pezeta ordaindu  
behar dira bainua duen logela  
bategatik. Bainurik gabekoak  
4.500 balio du.

INAKI VERGARA



Sagrario Goñi Olaseneko-  
Bordako nagusiak uste du  
eskaera handia izan arren  
landetxeen kontuak gainezka  
egin duela. Nafarroan 407  
landetxe zeuden aurtengo  
ekainean, eta urte  
bukaerarako 430 izatea  
espero dute.

INAKI VERGARA

na entzuten da gehiago. Sagrariok dioenez,  
lasaitasun bila etortzen dira. Erreka eta arbolak nahi dituzte.  
Eta berdea. «Lehen egunean ber-  
dearekin liluratzan dira», erran du. «Bigarren egunean ulertzen  
dute zergatik den hau horren berdea, egunero euria egiten bai-  
tu».

Sagrario Goñi duela bost urte  
hasi zen negozio honetan. «Herri-  
tik baserri batera etorri nintzen.  
Egin nuen baserria eta gelditu zi-  
tzaidan sobera handia. Eta lan-  
detxe bilakatu nuen». Sagrario  
hagitz interesgarria iruditzen  
zaio etortzen direnekin solastea.  
«Oso giro familiarra dago. Etor-  
tzen direnean mesfidantzaz-  
edo sartzen dira, baina laugarren  
egunerako badakite non den su-  
kaldea, non ibiltzen naizen ni».

Landetxe batek edozer gauza  
eskaintzen ahal du. Batzuek etxe  
osoa alokatzen dute, eta bertze  
batzuek, logelak. Olaseneko-  
Bordan 6.000 pezeta ordaindu behar dira  
bainua duen logela bategatik. Bainurik ga-  
bekoak 4.500 balio du. Horretaz landara,  
Sagrario gosaldua (350) eta afaria (1.500) es-  
kaintzen du. Sagrariorenean zortzi lagun  
sartzen ahal dira.

«Orain dela egun guti Nafarroako Gober-  
nutik abisua eman zidaten», azaldu du Sa-  
grario. «dirudienez, jende pila kexatu da  
etxeetan behar baino jende gehiago sartu  
omen dutelako zantzaitek. Kexak jarraituz  
gero, inspektzioa egingen zutela erran zuten.  
Jendeak probesten du uda lan egiteko anitz,  
baina hori ez dago ongi, zeren eta nik lau pla-  
za baldin baditut, ezin ditut zortzi bezero sar-  
tu».

Horregatik uste du Sagrario landetxeen  
kontuak gainezka egin duela. «Eskaera han-  
dia dago. Baina etortzen direnek eskubidea  
dute jakiteko non sartzen diren. Bezeroak  
aurkitu behar du galdegiten duena. Izan ere,  
publizitaterik hobereana ahoz ahokoa da. Be-  
zeroa kontent ateratzen bada, gero lagunak  
etorriko dira».

Sagrarioren aburuz,  
Gobernuak lizentzia  
gehiegi eman ditu, eta  
orain, foru dekretuko  
arau zorrotzak erabi-  
liz, galbahea egin nahi  
du. «Gu ados gaude  
hostoak paratzeare-  
kin, baina hostoak be-  
har den bezala paratu  
behar dira», erran du  
Sagrario Goñik.


## Lasaitasun bila

Landetxeetara madrildar-  
rak eta katalanak  
etortzen dira batez ere.  
Olaseneko-Bordan  
euskara baino, katala-  
na entzuten da gehiago.

# Bi etxe

**Hotelak, pentsioak, kanpk, apartamentuak, aterpeak,  
landetxeak. Nafarroan oporrista ostatu hartzeko toki eta modu  
anitz dago. Hona hemen bi bide: Olaseneko-Borda eta La  
Fresquera. Lehena Berangoen landetxea da. Bigarrena  
Berbintzanan dago, eta zaamar egiten da zehatz zer den  
esatea. Biak oporretarako ekk dira, baina ez dute elkarrekin  
zerikusirik. Kontua ez da biak paratzea, oporrik igarotzeko bi  
etxeren baimatea baizik.**

→ Asier Azpilikueta



# La Fresquera

**N**AFARROAKO ERDIALDEAN  
dago La Fresquera izeneko  
etxea. Berbintzana herrian. Ez  
da landetxe bat, ezta atsedean  
etxe bat ere. Esperimentu bat  
da. Etxearen jabeak Txutxo eta  
Txelo dira. Ekologia, lurarekiko  
errespetua, laborantza biologi-  
koa eta antzeko kontuak arunt  
barneraturik dituzte biek. Hala-  
ko batean, 1995ean hain zuzen,  
euren etxeko atea kanpokoei  
irekitzea otu zitzaion. Aurtengo  
udan Rakel Torrecilla eta Katixa  
Uterga iruindarrek dute La Fres-  
queraren ardura.

La Fresqueran bezeroek etxe-  
ko zereginetan parte hartzen  
dute. Konpartitzea da etxe  
horretako funtsa. «Baina ez da  
hippyen komuna bat», Rakelek  
behin eta berriro esan duenez.  
«Urtero etortzen den jendea  
dago, hiriko jendea, oso norma-  
la».

Udan hamaika eguneko hiru  
egonaldi antolatzen dituzte.  
Oraingo txandan 33 bat lagun  
daude etxean; hurrengoan 40 bat izanen  
dira. Bezeroek 30.000 pezeta ordaindu  
behar dituzte (25.000 ikasle eta langabe-  
tuek). Egonaldiek lantegi zentral bat dute  
(masajak, dantza, dietetika...), eta, horre-  
taz landara, egunero hainbat ekitaldi egiten  
dira: hitzaldiak, *rappel*-a, piraguismoa,  
txangoak...

La Fresquera etxea bertan dauden guzie-  
na da. Sukalde eta garbiketa zereginak hor  
diren guzien artean banatzen dira, txanda-  
ka. Beraz, sukaldaririk ez dute ordaindu  
behar; beraz, gastu bat gutxiago dute. Lan-  
tegiatako gaiak ematera doto-  
zen irakasle trukearen bidez  
ordaintzen zaie (asko bultzat-  
zen dute ekonomia mota hori);  
beste gastu bat gutxiago. Eta  
etxetik ehun metroa  
dagoen baratze biologi-  
kotik jaten dute; beste  
bat gutxiago.

## Ekologia praktikoa

Berbintzanako etxe  
berezi honetan ekologia  
praktikoa egiten dute.  
Hona hemen zenbait  
adibide. La Fresqueran  
bi bainugela dituzte.  
Goiko bainugelako kon-  
keta eta bainuontziko  
ura lorategiko landareen gainera  
erortzen da zuzenean. Hortaz, ezin  
dira xaboi kimikoak erabili. «Bestela-  
ko produktuak erabiltzen ditugu»,  
dio Rakelek. «Jendeak horrela ikus-  
ten du bestelako produktuak badire-  
la, erabili daitezkeela eta balio dutela.  
Eta lorategia urreztatzeaz gain, ez  
dugu ibai zikintzen». Beheko bainu-



Rakel Torrecilla eta Katixa  
Uterga iruindarrek dute La  
Fresqueraren ardura  
aurtengo udan. Etxeko  
kudeatzaileak urteko  
aldatzen dira. Hortaz, La  
Fresquera urtero aldatzen da.

INAKI VERGARA



La Fresquera etxean  
bezeroek parte hartzen dute  
etxeko zereginetan.  
Konpartitzea da etxe  
horretako funtsa.

INAKI VERGARA

gela, berriz, pixa eta kaka egite-  
koa banandurik dira. Hondakin  
likidoa baratzean eta lorategian  
botatzen dute; eta hondakin soli-  
doak konpost-lekura eramaten  
dute ongarrira egiteko.

La Fresquerako patioan bada  
putzu bat, etxeari izena ematen  
diona, hain zuzen ere. Putzua hoz-  
kailu bezala erabiltzen dute.  
«Hemen ez da inoiz toxikazio ara-  
zorik izan», ziurtatu du Rakelek.  
«Putzuak ez du erradiaziorik, eta  
beharrezkoak ez diren jakiak ez  
jatera behartzen zaitu».

Halaber, La Fresquerako harraska  
ekologikoa buztina erabiltzen  
dute detergente gisa platerak-eta  
garbitzeko. Baina platerak harras-  
kara eraman aitzin, ongi garbitu  
behar dira, hau da, zerbitzaturiko  
guzia jan behar da. Hori baita La  
Fresquerako lau oinarrietako bat.  
Beste hirurak? Bakandu, berrera-  
bili eta birziklatu. «Ez dakit nola,  
baina honek funtzionatzen du»,  
komentatu du Rakelek.

## Familia giroa

Landa mundua promozionatzea, nekazari-  
tza biologikoa eta ekologia praktikoa ezagu-  
taraztea, etxea konpartitzea, parte-hartze  
librea, bizikidetasuna. Hori guzia lortu nahi  
zuten Txutxok eta Txelok euren etxeko ate-  
ak ireki zituztenean. Dena den, nahiago izan  
zuten etxearen gobernua beste norbaiten  
eskuetan utzi. Rakelek eta Katixak eskura-  
tuko dituzte aurtengo etxeko irabazkiak. Baina  
kudeatzaileak urteko aldiz aldatzen dira.  
Hortaz, La Fresquera urtero aldatzen da.  
Baina, betiere, ingurumena errespetatzen  
eta elkarrekin  
bizitzen ikasteko  
etxea da.

«Bartzelonatik  
jende anitz etor-  
tzen zaigu», erran  
du Rakelek. «Ber-  
bintzanara iriste-  
an atsekabatu  
egiten dira, uste  
dutelako Nafarroa  
berdea aurkituko  
dutela. Baina  
gero, hemengo  
bizimoduarekin,  
jarduerekin eta  
bestelakoekin  
familia giroa sor-  
tzen da. Etxean

baleude bezala sentitzen dira hemen. Askok  
ez dute joan nahi. Bezeroek ere proposatzen  
dituzte zenbait jardura. Atzo xaboiak egin  
genituen, eta gaur aldaketa klimatikoaren  
inguruko hitzaldia emanen digu batek. La  
Fresqueran jardura anitz dago, eta badirudi  
atsetenaren kontrako etxea dela. Baina  
hemen erdiesten den atseten metala han-  
dia da».

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Alexander Tapia  
Perurena osatzen

Iazkoan Tapia Perurena olerkari iruindarraren olerkien edizioa atera genuen jaio zeneko mendeurrena zela hala edo nola profitatuz; gaurkoan ere, Tapiaren jaioteguna dela aitzakia harturik, liburuan eman gabe utzitako zenbait ekarriko ditugu osagarri.



**A** narrean Alexander Tapia Perurena (1899-1957), euskal olerkaria izkribua duen karririk ez du Iruñeak, eta horretarako aukerarik egokiena iazkoan igaro zitzaionez, jakinaren gainean egonda ere, oraino luze baino luzeago joko duela aisa atzeman daiteke tamalez. Hainbat gaizto guretako segurki ere! Edozein modutan ere, eta gaurko egunean, abuztuak 11, gure Alexander handia bizirik balitz 101 urte beteko zizutuzkeela aprobetxatuz, joan den urteko liburua osatzeko zenbait berri emanen dugu; izan ere, jakin baitakigu Iruñeko euskaltzale anitzendako sekulako aurkikuntza izan zela Alexander Tapia Perurenaren berri edukitzea, baita zein tamainako olerkari handia izan zela bere olerkietan beretan dastatu ahal izatea.

Arras gutxi dira iaztik hona Alexander Tapiaz jaso ditugun berri pertsonalak, gutxiegi zoritxarrez, bere alabarekin izan dugun harreman atsegina bada ere. Bestelakoa izan da, ordea, bere lanen inguruan iritsi zaigun informazioa, hasteko izen bereetik, bada, Tapiaren lehenbiziko olerkiak Iruña'tar Alexander ezizenarekin ageri baitziren. Gure iazko liburua lasterregi atera zen, orduko baldintzek behartuta neurri batean, eta bertan 22 olerki baizik ez ziren jaso. Ordudanik artxiboetan eta eginko miaketetan beste hogeita hamar bat olerki-lan gehiago topatzeko aukera izan dugu, hots, lehenbizikoa bezalako beste liburu bat egiteko adina.

Gure iazko edizioan eskaintzen genuen Tapiaren lehenbiziko olerkia 1925eko *Zoruna* da. Alabaina, Alexander Tapiaren lehenbiziko idazkia

1921erako agertu zen gutxienez, *Amatxo*. Billboko *Euzkadi* egunerokoan hain zuzen ere. Horrek, gainera, Tapiaren aukera politikoaz nahikoa argi ematen digu, bada, bere poemak aterpetu zituzten argitalpenei erreparatzen badiegu ez da zalantzarik geratzen Tapiak 36ko gerra aurretik behinik behin defendatu zuen jarrerara jeltzaleaz.

Aipatu 1925eko *Zoruna Euskal Esnalea*-n argitara eman zuen arte gure Tapia Perurenak hogeitaz olerki baino

kadi-n; 1922an *Amayur*, *Aralarko gallurran*, *Bai noa beiti- ra*, *Eskaña*, *Sabini*, *Usobu ba- kuña* eta *Emadan iria* agertu ziren *Euzkadi*-n, eta *Agur Kai- ku*, *Antzikur ausia*, *Ene, ene*, *Jauzi ederra* eta *Zu zara Kaiku*-n; 1923an *Arrats apa- lean*, *Bera mugak*, *Gizonaren biotza* eta *Lili garbiak* argita- ratu zituen *Euzkadi*-k, eta 1924an *Itxedondako artzaia*, *Usotxu* eta *Geldi arren!* Do- nostiako *Argia*-k.

Gerra aitzineko urteetan Iruñeko jeltzaleek kudeatzen zuten *Amayur* astekarian atera zituen Tapiak bere olerki lanik gehien: *Anaitasuna*, *Orain da ordua*, *Usotxu urdin*, *Noiz ote edota Kanpion irakasleari aren sortegunean eskaintako Aunitz urtez*. Horretan ere, erdaraz taxuturiko zenbait olerki zein hitz lauko hainbat kolaborazio agertu zituen Tapiak, horien artean interesgarrietakoa *Zor bat ordaintzen* izenburupean *Euzkadi*-ko euskarazko orrialdearen arduraduna izandako Kirikiño zenduari emaniko esker ona, non gure Tapiak, tapakirik gabe, bere burua idazletzat agertzen baitzizun. «Kirikiño begikoa! Kirikiño biotzekoa! Kirikiño aztugaitza! Zurekin zor bat daukat aspaldi. Ta aspaldi zor ori ordaindu gogo bizi-bizian nagokizu. Zein ona izan ziñan beti nerretzat! Aita bezenbat maite zindudan. Eta ez da arritzekoa, euskal idazle banaiz, barrik zu, Kirikiño maitea! Lenengo aldiz euskeraz idazten oraindik ezereza nintzala, lan apal-apal bat igorri nizuenean *Euzkadi*-n argitaldu zenezan bereala txaloka asi zintzaidan, ta ordudanik, nolako abegi ona egiten zenien nere idazkai guziei!».



gehiago bazituen jada karririka han-hemenka: 1921ean *Amatxo*, *Orbange Miren neskutzari*, *Txori gaxua!* eta *Oñazez* agertu zituen *Euz-*

etorri ahalean

Patziku Perurena

ooo

## Herioren inguruan

«**L**IBYAKO NOMAdek, heleniarren arabera lurperatzen dituzte hildakoa, nasamonek izan ezik; hauek eserita lurperatzen dituzte, azken arnasa ematean eserrarazi eta ahoz gora hil ez daitezen zainduz. Bizitegiak berriz ihiz loturiko kanaberaz antolatzen dituzte eramateko moduan». Zenbat kostatzen den posturak aldatzea!

«Sziar gerrariak, guduan hil ditzakeen guztien buruak erregeari eramaten dizkio, haien eskubidea irabaz dezan. Gero buruak larrutu, kanpotik berriz zaldilarruz es- tali eta barrera urreztatuz edalontzitate erabiltzen dute etsien kaskezurra. Eta gorputzeko larruarekin, jantziak egiten dituzte, giza larrua lodi eta argia baita, agian guztietan argiena zuritasunez». Ez al litzake ederrago, jendea jendelarruz jaztea?

«Gerroarren lurraldean, erregea hil dakienean, gorpu osoa argizaritu, sabela ireki garbitu eta iraubelar xehetuz eta hurringaiz gainera apio eta aneta haziz betea duelarik, berriz josi egiten diote, eta bere hilobian ipini, ondoan, alde banatan lantzak sartu eta gaitetik egurrez estaliz; eta alboan ohaidetako bat ehortzen dute ito ondoren, baita koparia, sukaldaria, zaldizaina, laguntzailea, mezularia, zaldiak eta urrezko ontziak ere». Orain, demokrazian, presidentea hiltzean, ministro, diputatu eta ipurgarbitzaile guztiak akatu, eta beuren ondasun zikin guztiekin bertan lurperatzea lezio txarra izanen ez al litzake?

«Indiar isedonek (gurasojaleek), gizon bati aita hiltzean, ahaide guziek oparitan abereak eraman, bertan hil eta haragiak zatitu ondoren, aita hila ere zatitu egiten dute, eta haragi guzia nahastuz, janaritzat aurkezten dute. Eta zenduaren burua soildu eta garbitu ondoren urreztatuz,

eta semeek imajintzat erabiltzen dute urteuro opalkuntza haundiak eginez». Inoiz ezin jakin idi txuletak edo guraso baten saiheskiak jaten ari garen.

«Beste indiar batzuk haragi gordina jaten dute eta padeak deritze. Gizonezko bat gaizkitzen bada, gizonezkoek hiltzen dute; gaitzak hiltzen bada, haren haragia berentzat galdua dela esanez; eta gaizki dagoenak ukatzen badu, hala ere haiek, desados, hil eta elkarrekin ospatzen dute. Eta emakumea bada, era berean, egiten dute emakumezkoek. Izan ere, zahartzera iristen dena opaldu eta ospatu egin baitute. Gutxi dira ordea horretara heltzen direnak; gaizkitzen den oro hil egiten baitute lehenago». Gure Osasun Sailak zer ikasi haundia dauka oraindik.

«Beste indiar batzuk berriz ez dute inolako bizidunik hiltzen, eta belarjale hutsak dira. Hauetakoren bat gaizkitzen bada, bakartegira joan eta etzan egiten da, eta inor ez da hartaz arduratzen, ez hil ondoren ez aurretik». Gure zahartegietan balekitez! Gainera «hauek abereak bezala agerian egiten dute kopula, beren larrukolore bereko hazi beltza isuriz, etiopiarrek bezala». Horra nondik, gure *hazurbaltzak*. Oroitzen?

«Etiopiar *arrajaleek*, hildakoen gorpua ihartu ondoren, guztia iheltoz estali eta margoz apaintzen dute, ahal den neurrian haren irudia berdinduz eta, ondoren zutarrigardenez inguratu, eta gorpua zutik ikusten da harrian barrera, inolako usain txarrik ez beste ezer sortu gabe. Eta urte betez ahaide hurbilek beren etxeetan edukitzen dute uzta guztietako hasikina eta erreki opariak eskainiz, eta azkenean hiri inguruan uzten dute zutarrimomiduna». Herioa asma liteke, diseatu eta apaindu ere bai, baina, atzenean Biziak ederragotzen du.

## Ziria

• Motxorrosolo •

## Kronikoa

**J**aten duguna omen gara. Datozen asteetan baieztatu-ko den lege, Naparikoa ez da kasu bakarra izan. Era guztietara, afera honetan ere, kronika moduko errealitatea gure gaixotasun kronikoen adierazle.

# Koldo Erbiti

☉ SASKIBALOIKO KANPALDIKO BEGIRALEA

## «Zaila da entrenatzaile euskaldunak aurkitzea»

Koldo Erbiti saskibaloian aritu da San Fermin ikastolan izan zenetik.

Orain, 28 urterekin, hurrei irakasten die berak ikasitakoa, baita euskaraz egiten ere. Bera bezalako saskibaloia entrenatzaile euskaldun asko ez dira Nafarroan.

Saskibaloian euskaraz jokatzeko hamar eguneko kanpaldia egin dute bederatzi eta hamabi urte bitarteko hirurogei bat haurrek Altsasun.

### ■ Zer kanpaldi mota izan da hori?

Saskibaloian jokatzen ikas-teko edo sakontzeko kanpaldia da. Baina hauek ume tikiak dira, saskibaloia gogor egiten zaie, eta bestelako entrenigarri eta jokoak behar dituzte. Azken batean, aisialdiko kanpaldi bat da saskibaloia gai nagusizat duena.

### ■ Nondik sortu zen kanpaldia euskaraz egiteko asmoa?

Nafarroako Saskibaloia Federazioa duela bi urte hasi zen euskara kanpaldietan sartzeko. Lizarran bi multzo zeuden, bata gaztelaniazkoa eta bestea euskarazkoa. Hasieran ez genuen esperientzarik euskarazko lerro bakarria antolatzeko. Baina bi urte pa-

satu eta gero, ikusirik lorturiko giroa ona dela, lehen aldiz antolatzen ausartu gara. Altsasun 61 ume ditugu, 9 mutil eta 52 neska.

### ■ Zergatik dago desoreka hori?

Ez dakit, modaren kontuak dira. Ni ikastolan nengilenean hiru gela zeuden eta mutilen hiru talde. Moda hori bukatu zen, eta orain mutilak beste kirol batzuetan aritzen dira: beisbol, hockey eta, noski, futboleant.

### ■ Salduidazu saskibaloia, bada. Zer du saskibaloiak futbolak ez duenik?

Giro hobea dago gurasoen eta umeen artean. Partidetan normalean gurasoak isilik daude. Kanpotik ikusita, futboleko giroa oso bestelakoa da, bortitzagoa. Eta saskibaloia kirol osoa da. Koordinazio handia behar da.

### ■ Eta Nafarroan zertan da saskibaloia?

Saskibaloian ez dugu Osasuna edo Portland bezalakoirik. Gizonezkoetan, Alvecon-Maristas bigarren mailan dago, ACBtik urrun. Eta emakumezkoetan, CBN lehen mailan dago. Orain arte nesken saskibaloiak indar handiagoa izan du.

### ■ Eta entrenatzaile euskaldunak?

Entrenatzaile gutxi gara eta alde batetik bestera ibili behar dugu. Zaila da entrenatzaile euskaldunak aurkitzea. Hemen zazpi gaude, eta urtean zehar ikastolatan aritzen gara.

### ■ Eta hurrek, jolastokian gaztelaniaz egiten dute.

Bai. Ez dakit zergatik den hori. Umeak adin batera iristen direnean zuzenean jotzen dute erdarara. Elkarrekin gaudenean euskaraz egiten dugu.

→ Asier Azpilikueta




● IÑAKI VERGARA

soslaia

Koldo Erbiti Iruñean jaio zen, duela 28 urte. San Fermin ikastolan ikasi zuen, gero NUPen Gizarte Graduatua egin, eta egun lantegi batean ari da lanean. Saskibaloian ikastolako taldean eta Argarai eta CBN taldeetan jokatu du. Aspaldi utzi zion txapelketetan jokatzeari, eta orain entrenatzaile lanetan dabil San Fermin eta Amaiur ikastolatan.

Koldok euskara bultzatzeko modu bezala ikusten du kanpaldietan saskibaloia euskaraz irakastea. Kanpaldiko begirale bezala hagitz ongi pasatzen du, eta ez dirudi lana gogorra egiten zaionik. «Ez gara saskibaloia entrenatzaileak soilik», dio. «Beguirale-animatzaileatzat dut neure burua. Egun osoa eman behar duzu umeekin, eta saskibaloiaz aparte, beste mila ekintza egin».

● IÑAKI VERGARA



## Saskibaloian euskaraz

Sanduzelai, Ardoi, Amaiur, San Fermin eta Paz de Ziganda ikastetxeetako 61 haurrek 10 egun eman dituzte Altsasun. 9 eta 12 urte bitartekoak ziren, eta atzokoa izan zuten azken eguna kanpaldian. Goizetan, bi orduz aritu dira saskibaloian, eta gero makina bat jardue-

ra egin dituzte: txapelketak, jolasak, herri kirolak... Kanpaldiko haur gehienek ikastolan saskibaloian jokatzen dute normalean. Dena dela, Altsasura joateko ez zen beharrezkoa saskibaloian jakitea. Ongi pasatzeko gogoia izatea nahikoa zen. Eta lortu dute zinez.



## Nafar Kronika

### Itziar Luri

## Aspalditik datorren kontua

Gai hau ez da berria. Duela urte asko Fermin Valenziak berak abesti bat egin zuen gai honen inguruan. Orditik nabaria izan da nafarrok Bardeako tiro eremuari diogun gaitzespena. Amerikarrak kanpora bidaltzen zituen Fermin Valenzia hura asko aldatu da azkeneko hamarkadetan, egun anorexikoentzako soinekoak saltzen dabil... Baina Bardeako gaiak antzera samar dirau, nahiz eta egun hauetan guztien ahotan sarriago egon.

NATOk egiten dituen probak, gertatutako istripuak, inguruko herrietako biztanleei eragiten dizkien arazoak eta Europar babestutako ingurugiroan kokatutako tiro eremu bakarra dela alde batera utzita, aipatu beharra dago herriak (edo horren zati handi batek behintzat) ez duela tiro eremurik nahi. 1951n, frankismo bete-betean sinaturiko akordio horrek ez du balio XXI. mendean atarian. Kontratua amaitzeaz dagoela, aukera paregabea da arazoa betiko konpontzeko, baina Nafarroako agintariak (Sanz eta konpainia) behin eta berriro ari dira kontratua berritzeko saioak egiten. Azkeneko ezustekoa joan den astean iritsi zitzaigun: Bardeako Batzordeko presidente Jose Antonio Gaiarrek Espainiako Defentsa Ministerioari kontratua hamar urte luzatzeko proposatu zuen. Kontratu horren amaieran eremua desegin egingo litzatekeela dio; hala ere, proposamen horren atzean erabakia atzertzeko asmoa suma daiteke. Gaiarre beldur da. Tiro eremua behin betiko gaitzearen beldur, haren hitzetan, baina, nire uste apalean, Estatuari aurre egiteari dio beldurra, nafar gehienon nahia defendatzeko bada ere. Desjabezaren aitzakia baino ez dela erantzun du Tiro Eremuaren Aurkako Asanbladak; eta, egia da, dagoeneko ez dago boteretsuari aurre egiten ausartzen denik, ezta abestiek ere, Fermin Valenziak egiten zuen moduan.

## gure aukerak

### MUSIKA

- **Lizarran:** Gaur, 22:00etan, Black Time Jazz taldeak jazz uneak eskainiko ditu San Nicolas karrikan.
- **Tafalla:** Numidia talde multietnikoak kontzertua eskainiko du gaur Nafarroako plazan, 22:30ean.
- **Mendigorrria:** Bihar, *Elizetako sonoritatea* zikloaren baitan, Alberto Urrozek organoa joko du elizan, 20:30ean.
- **Lerate:** Bihar funky jaia egiten dute Alkozko urtegiaren, 23:00etatik aurrera. Kontzertua eta dantza taldea izanen da.

### BERTSOLARIAK

- **Leitza:** Gaur, 19:00etan, herriko besten kariatara, Unai Iturriaga, Peñagarikano, Maialen Lujanbio eta Sebastian Lizaso ariko dira.
- **Zubieta:** Asteartean, eguerdian, Jexux Mari Irazu eta Sebastian Lizaso izanen dira herrian.
- **Etxalar:** Asteartean, 18:00etan, bertso saioa izanen da Egaña, Lizaso eta Peñagarikano bertsolariekin.

### ZINEMA

- **Barañain:** *Pinotxo* filma pantailaratuko dute gaur, euskaraz, lakuko anfiteatroan, 22:00etan.

### ANTZERKIA

- **Lizaso:** TEN Pinpilinpauxa taldeak *Zapatak hondaturik* antzelana eskainiko du gaur, herriko plazan.
- **Atarrabia:** Gaur Coscorron taldeak *Ruido y más ruido* kale ikuskizuna eskainiko du (perkusioa, piroteknia, erraldoiak...) Antso VI.a Jakitunaren plazan, 22:15ean.
- **Uztarrozt:** Bihar, 20:30ean, Zirkotopia taldeak *Txalozirkus*

lana taularatuko du herriko plazan.

### KIROLA

- **Elizondo:** Bihar herri kiroleko proba konbinatua egiten dute merkatuko plazan, 20:30ean.

### ERAKUSKETAK

- **Barañain:** Festen inguruko 100 begirada erakusketa ikus daiteke Kultur Etxean, astelehene ostiralera, 11:00etatik 13:00etara. Irailaren 15 arte.

### LEHIAKETAK

- **Atarrabia:** Abuztuaren 31n akitzen da herriko jaletarako kartel lehiaketako lanak aurkezteko epea. Kartelak, behar bezala babesturik, Kultur Etxean aurkeztu behar dira (Kale Nagusia, 67) 10:00etatik 14:00etara. Kartelaren gaia, estiloa eta teknika libre izango da, 70 cm.-ko altuera eta 50 cm.-ko zabalera izan behar du, eta honako testua: Villava-Atarrabia. Fiestas Patronales 2000-Herriko Jaiak 2000. Herriko ar-

marriak ere azaldu behar du kartelean.

### BESTELAKOAK

- **Zangoza:** Gaur, hilaren 17an eta 18an, Erdi Aroko afariak egiten dituzte Karmengo klaustroan. Erreserba egiteko deitu lehenbailehen 948-430497 telefonora.
- **Lerate:** Gaur, 22:30etatik aurrera, arabiar afaria zerbitzatuko dute Alkozko urtegiaren, 2.500 pezetaren truke. Ondoren ikuskizuna izanen da. Informazioa eta erreserbak 646-238024 telefonon.

• IÑAKI VERGARA



## Biluzik

Larru gorritan utzi dute herria asteotan. Ardiei artilelea moztzen dietenean bezalatsu, desinformazioak (ez-informazioak) babesgabe uzten du herriarra. Arazoak erakundeen aitzinetik pasatzen dira, eta batzuetan ez ikusiarena egiten dute. Arazo gehiegi handitu arte, noski. Orduan informazioa nahi duten moduan erabiltzen dute eta nahi duten bideetatik zabaltzen dute. Eta artaldeko gehiengoak bide beretik segitzen du. Artilela kenduko diete, baina haziko zaie berriz. Jertse hagitz ederra salduko diete, eta hurrengoaren zain, hurrengo artile mozketak (hilketa) berriaren zain. Eta hi Camille, habil kontuz scrapie labeldun ardiekin!